Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Joxe Luix Irastortza Mitxelena

Qiartzun, Gipuzkoa
(1917-2009)



Aurkibidea

Biografia



Joxe Luix Iturriozko Larrazabal baserrian jaio zen. Baserri horrek Oiartzungo kalea baino gertuago ditu Goizueta eta Arano. Ez da harritzekoa, beraz, Larrazabaltarrak aieka hartarako joera izatea. Andregaia ere Aranokoa egin zuen: Gregori. Hala ere, bai aieka batera bai bestera, oinez asko ibili behar izaten zuten; eskerrak Joxe Luixek beti gustuko izan zuen oinez ibiltzea. Erretiratu eta gero ere makina bat sari jaso zituen ibilaldietan. Hasieran baserrirako izaki, beste senideek baino eskola gutxiago izan zuen; baina gerran zauritu ondoren, lanean hasi zen eta han nabaritu zuen eskola falta. Hala ere, beharrarekin ikasi zuen, eta jubilatuen etxean ere 20 urte baino gehiago aritu zen bertako kudeaketa lanak egiten.

Zintak

OIA-077

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Data**: 2008-01-29
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-078

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Data**: 2008-01-29
- **Iraupena**: 57 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

Pasarteak

1. Eskutitzen bidez ezagutuak

- **Erref**: OIA-077/003
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:06:43. **Bukatu**: 00:09:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Joxe Luix Oiartzungo Larrazabal baserrikoa da eta Gregori, Aranokoa. Joxe Luix gerran zauritu zen, eta, sendatzen ari zela, Gregorirekin idazten hasi zen. Lehen, ohitura handia zegoen eskutitzak idazteko.

2. Dena oinez

- **Erref**: OIA-077/004
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:09:45. **Bukatu**: 00:13:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Bederatzi urte egin zituzten nobio. Joxe Luix Errenterian aritzen zen lanean. Handik atera, Larrazabalera joan eta handik Aranora joaten zen segidan, Gregorirengana. Garai hartan, dena oinez. Aranon ezkondu ziren. Ezkon-bidaia Iruñera egin zuten.

3. Arano

- **Erref**: OIA-077/009
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:18:15. **Bukatu**: 00:20:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Gregori Aranokoa da. Hauek Hernanira dute joera. Goizueta-Hernani egiten duen autobusa hartzen zuten: korreua. Jai arratsaldeetan dantza izaten zuten Aranon. Faten.

4. Dantza

- **Erref**: OIA-077/010
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:20:20. **Bukatu**: 00:22:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Joxeluix ez zen dantzazalea, baina Gregori bai. Santiagoetan izaten ziren jaiak, Aranon. Anaiekin baltsean ibili, eta, apaiza, hala ere, errietan.

5. Apaizaren debekua

- **Erref**: OIA-077/011
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:22:10. **Bukatu**: 00:25:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Eliza asko aldatu dela diote biek. Orain dela 50 bat urteko San Roke Egunean, alaba ttikia manga motzetan eraman zuten, eta apaizak galarazi egin zien santuari muxu ematea. "Etzitt beñe haztutzen hoi".

6. Dantzaldiak

- **Erref**: OIA-077/012
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:25:20. **Bukatu**: 00:27:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Larrazabaltarrak ez ziren dantzazaleak. Gregoriren familia bai, ordea. Aizegaineko bilera. Filarmonika.

7. Dantzazaleak

- **Erref**: OIA-077/014
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:28:10. **Bukatu**: 00:29:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Gregoriren familia oso dantzazalea zen. Ez da inoiz ahaztuko familia guztiak plazan dantzatu zuen aldi hartaz. Garai hartan sueltoa dantzatzen zen: "lehengo dantza hori".

8. "Amaixkillak"

- **Erref**: OIA-077/015
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:29:30. **Bukatu**: 00:31:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:
Gregorik gogoan du amezkilak jotzerako etxera joan behar zela. Behin, txokolate-jatera gonbidatu zituzten eta ez zituzten amezkilak entzun. Etxera joateko beldurrak egon ziren; aitak ez zien errieta egin baina hurrengoan goizago joateko esan zien.

9. Errenterian lanean

- **Erref**: OIA-077/016
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:31:45. **Bukatu**: 00:35:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Jose Luis igandeetan joaten zen Aranora, Gregorirengana. Ordurako hasia zen Errenterian lanean. Lehendabizi, 'Real Compañía Asturiana'n, Kaputxinoetan, eta, gero, baldintza hobeak zirela eta, 'Compañía Nacional de Oxigeno'n hasi zen, eta han segitu zuen. Tarteka, ordubete gehiago sartu behar izaten zen estatuarentzat. Purrusta.

10. Lan eta lan: andregaiarengana joateko denbora ezin atera

- **Erref**: OIA-077/017
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:35:00. **Bukatu**: 00:37:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
'Compañía Nacional de Oxigeno'n txandaka aritzen ziren. Jaietan ere lan egin behar izaten zuten. Lantegiko soldatak ez zuen nahikoa ematen eta beste lanetan sartu behar izaten zituzten ordu gehiago. Libratzen zenean joaten zen andregaiarengana, Aranora.

11. Altzibar eta Basterotxiki

- **Erref**: OIA-077/019
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:40:20. **Bukatu**: 00:42:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Basterotxikira ezkondu ziren. Garai haietan zaila zen etxea aurkitzea. Altzibar arrunt ezberdina zen garai hartan. Basterotxikin eskola zegoen.

12. Altzibarko etorkinak

- **Erref**: OIA-077/021
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:48:00. **Bukatu**: 00:51:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Altzibar asko aldatu da. Etxe asko egin dira beraiek etorriz geroztik. Jende asko etorri zen kanpotik. Etxeetan lan egiten hasi ziren emakume etorkinak. Sukalde batean hiru familia. Etorkinek euskaraz jakin ez eta beraiek gazteleraz ere ez.

13. Neskame

- **Erref**: OIA-077/022
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:51:00. **Bukatu**: 00:53:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Gregori baserrian aritzen zen eta gero neskame joan zen, baina aita gaixorik jarri zenean, Gregori etxera itzuli zen. Ezkondu arte.

14. Eskola aukerarik ez

- **Erref**: OIA-077/024
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:56:15. **Bukatu**: 00:57:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Joxe Luixek ezin izan zuen denbora luzean eskolara joan. Lehendabizi Karrikako eskolan egon zen. Hiru hilabete egin, eta zerbaitengatik eskola eten egin zen. Gero Aizegainen ere jarri zuten eskola, baina han maisuak negu bakarra egin zuen.

15. Aranoko maistrak

- **Erref**: OIA-077/025
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:57:40. **Bukatu**: 01:00:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Gregori, Aranoko eskolaz: Lehendabizi, maistra zahar bat izan zuten. Harekin ez zuten leitzen ere ikasi. Gero, Iruñetik etorri zen maistra, eta, hura gogorragoa izaki, ez zuten eskolara joan nahi izaten, baina aitak behartu egiten zituen. Gero, Zarauzko beste bat ere eduki zuten. Haiekin ikasi zuten leitzen, eskribitzen eta erdara pizar bat.

16. Dotore jantziak

- **Erref**: OIA-077/026
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 01:00:38. **Bukatu**: 01:02:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Gregorik gogoan du jaunartzea Aranoko jostun batek egindako soineko batekin egin zuela. Erretraturik ere ez zuten atera. Amak arropa politak josten zizkien: "Beti dottore jantziak". Jaia iritsi eta arropa berria janzteko ilusioa izaten zuen. Gaztaro "alegria ta arront politta" izan zutela dio.

17. Beharrarekin ikasia

- **Erref**: OIA-078/002
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:01:10. **Bukatu**: 00:03:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Joxe Luixek ez zuen eskolara joateko aukera handirik izan. Fabrikan bertan ikasi behar izan zuen. Eskolaren beharra handia izan duela dio. Baina beharrarekin ikasi egin du. Jubilatu etxean bertan, 20 urte aritu da hango kontuak egiten.

18. Aizegainen eskola

- **Erref**: OIA-078/003
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:03:50. **Bukatu**: 00:06:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Berak baserrirako gelditu behar zuen hasieran, eta beste senideek eskola gehiago izan zuten. Trumoitar batek Aizegainen gaueko eskola jarri zuen eta

han egin zuen negu bat, inguru hartako beste baserritar gazteekin batera. Trumoia ikazkina zen, baina fraide ibilia zenez, zer edo zer bazekien.

19. Lan asko egina

- **Erref**: OIA-078/004
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:07:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Joxe Luixen eskola lana izan zen. Gregorik dio, lan asko egina dela bere gizona, baina senideetan hobekien ere bera dagoela. Andreak ongi zaintzen duela.

20. Larrazabal inguruko basoak

- **Erref**: OIA-078/006
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:11:40. **Bukatu**: 00:13:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Larrazabal inguruan baso asko dago. Jende asko ibiltzen zen basogintzan: ikatz egiten, txondorra... Orain pinua dago, baina lehen: haritza, pagoa, norteko haritza...

21. Oinez

- **Erref**: OIA-078/008
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:14:30. **Bukatu**: 00:17:45

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Joxe Luix oinez asko ibilia da. Gaztetan, halabeharrez, eta, gero, afizioz. Baita erretiratu eta gero ere. Gregori ere asko ibiltzen zen. Erretiratu ondoren makina bat antolatutako zeharkaldi eginak dira eta sari asko dituzte etxean.

22. Oinez asko ibiliak

- **Erref**: OIA-078/009
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:17:45. **Bukatu**: 00:20:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Senar-emazteak biak asko ibiltzen ziren. Orain gutxiago. Bihotza nekatuta zeukala eta, markapasos jarri zioten Joxe Luixi. Antxoika-antxoika.

23. Bihotzeko kontuekin, bihotza nekatu

- **Erref**: OIA-078/010
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:20:00. **Bukatu**: 00:21:15

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Bere garaian oinez asko ibili zelako nekatu omen zaio bihotza Joxe Luixi. Baina ibiltzea gustatu izan ez balitzaio, joango ote zatekeen zortzi urtean Aranoraino, Gregorirengana?

24. Jaiotetxea gogoan

- **Erref**: OIA-078/011
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:21:15. **Bukatu**: 00:24:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Gregori ezkondu eta Altzibarrera etorri zen. Geroztik, Aranora gutxitan joaten zen. Ez zen hain erraza joatea: garraio gutxiago, haur txikiekin... Bertan bizi zirenean oholezko etxea zuten eta berria egin zuten, ilusio ikaragarriarekin.

25. Frontean zauritua

- **Erref**: OIA-078/013
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:29:15. **Bukatu**: 00:32:40

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Gerrara "boluntario" joan behar izan zuen Joxe Luixek, beste bost oiartzuarrekin batera. Frontean ibiltzea tokatu zitzaien. Kontraeraso bat izan zuten eta kopatuak egon ziren. Orduan zauritu zen Joxe Luix eta ospitale militarretan egon behar izan zuen. "Mutilado de gerra" da. "Oain kusita gotzen tzit, gu re hola ibili giñun ba".

26. Soldaduak ere gose

- **Erref**: OIA-078/015
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:33:10. **Bukatu**: 00:35:40

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Soldadutza tokatzen zitzaien. Boluntario joatea hobe zela esan zieten eta halaxe joan ziren bost oiartzuar. Orain bera bakarrik bizi da. Soldaduek ere gosea pasatzen zuten. Jan berorik jan gabe ibiltzen ziren egunetan. Mendiz mendi ibiltzen ziren. Gauez tiroketak. Ez dio inori desiratzen gerran ibiltzea.

27. Aranon errota irekita

- **Erref**: OIA-078/016
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:35:40. **Bukatu**: 00:38:55

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Gregorik dio gazteek ez dezatela gerra ikusi. Berak ere gogoan du gerra: Aranoko plazara falangeak iritsi eta bertako gazte bat eraman zuten. Gerra ostean, artoari eskerrak taloak janez-eta konpondu ziren. Aranon errota irekia zeukaten, baina baziren urrutira joan behar izaten zutenak. Oiartzungo asko Goizuetara joaten ziren irin bila.

28. Larrazabalen argindarra

- **Erref**: OIA-078/017
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:38:55. **Bukatu**: 00:42:15

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Lehen baserri askotan ez zegoen argindarrik, baina Larrazabalen Arraskuerrotako errotari zaharrak jarri zuen; Asteasuinzarrak. Bertako urarekin eta motorrarekin jarri zuen argindarra. Ote-jotzeko makina ere motor harekin jartzen zuten. Aranon, Gregorik beren etxean beti ezagutu du argia, Arranbide zentrala gertu baitzuten. Argia joaten zenerako, kinkila egoten zen.

29. Aranon ere aldaketak

- **Erref**: OIA-078/018
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:42:15. **Bukatu**: 00:44:25

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Gregorik bere herria, Arano, nolakoa zen kontatu digu. Bi denda zeuden. Eliza eta frontoia. Jende gutxi bizi zen, lanera asko ateratzen baitzen, dirua irabaziko bazuen. Orain jendea itzuli egin da, lehengo etxeak erosi eta konponduta. Oso polita dago.

30. Larrazabalgoek Goizuetarako joera

- **Erref**: OIA-078/019
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:44:25. **Bukatu**: 00:45:50

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Larrazabalgoek Oiartzungo kalea baino gertuago zuten Goizueta; hara joaten ziren irin bila eta enkarguak egitera. Oiartzungo kalera gutxi joaten ziren.

31. Jauna hartzeko: bi ordu oinez eta baraurik

- **Erref**: OIA-078/020
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:45:50. **Bukatu**: 00:48:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
Larrazabalgoek jaunartzea Oiartzunen egin zuten. Baraurik joan behar izaten zen jauna hartzera, eta Larrazabaletik Oiartzungo kalera bi ordu baino gehiago ziren oinez. Ezin zen ura ere edan. Aitona-bilobak goizeko 6etako mezara goiz etortzen ziren. Eliza oraindik itxita aurkitzen zuten. Mezatik atera eta gosari txikia Altzibarko Torren egiten zuten.

32. Lana eta dirua: aldaketak

- **Erref**: OIA-078/021
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:48:45. **Bukatu**: 00:50:50

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Gauzak asko aldatu direla diote biek. Gregorik dio emakumearentzat orain gogorragoa dela, kanpoan eta etxean egin behar dutelako lan. Baina senarrek laguntzen dietelako poza hartzen du. Lehen ez zen fabriketan-eta lan aukera handia izaten. Orduan, baserrian izaten zen nahiko lana. Larrazabalen saldu zen lehendabiziko behiarekin 1.000 pezeta jaso zuten (sei bat euro). Orduan asko iruditzen zitzaien.

33. Lantegiko soldata, eskasa

- **Erref**: OIA-078/022
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:50:50. **Bukatu**: 00:54:00

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Sosari hobeto kontzen zitzaion lehen. Orduan zorrari ikaragarrizko beldurra izaten zitzaion. Jornala hartu eta lehendabiziko gauza errentaren dirua jasotzea izaten zen. Emakumeentzat ez zegoen aukera asko: baserrietara joaten ziren lanera, jertseak egiten aritzen ziren... Ahal zena egiten zuten. Lantegietako soldata eskasa zen eta senar-emazteek, biek, beste nonbaitetik atera behar izaten zuten dirua.

34. Lehen dirua eskas eta orain osasuna eskas

- **Erref**: OIA-078/024
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:55:10. **Bukatu**: 00:56:48

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Joxe Luixek dio orain ekonomikoki hobeto daudela baina sosak gastatzeko osasuna falta dutela. "Hola da bizitza ta hola izango da. Gazteik hil nahi ez eta zahartu eta bakizu... gauza ez zahartu ezkiotz. Miño ez giñazke kejatu..." dio Gregorik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-31

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com